

GUaiXE.eUS



Rubor-tenis txapelketak irabazleak ditu



Kirolak >> 13

Iturmendin San Migelak eta Altsasun Alde Zaharreko festak eta artisau azoka. Asteburuan bada zer ospatu Sakanan



Sakanerria >> 6

Maiatzarekin udaberria



>> 6

Altsasuko Udalak haur eskolako lanei oniritzia eman die >> 7

Memoria historikoko ekitaldia antolatu dute Olatzagutian bihar >> 3

eLe festa, euskaldun berriei aitortza egiteko >> 5



Eskola txikien identitatea agiri batean jasoa dute >> 9



Auzo-konposta egin nahi duten altsasuarrendako deialdia >> 7



Lakuntza eta Altsasuko aktoreak eszenara >> 15



Irurtzungo kirol ekitaldiak martxan >> 11



Europako musika eskolen jaialdia Altsasun >> 14

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.
info@dekoventnavarra.com
www.dekoventnavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ZORIONAK Maialen!!
Igandean zortzi urte
beteko dituzu, prime-
ran pasako dugu!!
Aita, ama, Uxue, Patxi
eta Iker.



Ainetz Lazkoz
Ginea

ZORIONAK polita!!
6 urte dagoeneko. Seitu
guai arte bezain alai ta
zoriontsu. Muxu pila
bat familia guztiaren
partetik.

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

maiatzak

6-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Europako Musika Eskolen Jaialdiko kontzertua. Maiatzaren 6an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Iortia kultur gune pareko plazan. **Informazio gehiago 14. orrian.**

Skalari Rude Band, Ritxi Skatalite eta Roberto Tortuga. Maiatzaren 6an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Gaztetxean. Ondoren, festak Lezea tabernan segituko du.

Europako Musika Eskolen Jaialdiko kontzertua. Maiatzaren 7an, larunbatean, 11:00etan Altsasuko Iortia kultur gune pareko plazan. **Informazio gehiago 14. orrian.**

Joan-Etorriko bidaiak, itxiera festa. Maiatzaren 7an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Txefo Mendez, Bero, Jone, Unai eta beste.**

Gazte txokoko gazteen kontzertua. Maiatzaren 9an, astelehenean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Antzerkia

Aquel invierno. Maiatzaren 6an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Iortia antzerki tailerra.**

Gora ezkonberriak! Maiatzaren 7an, larunbatean, 18:30ean eta 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. **Txingurriye eta Lakuntzako Udala.**

Tengamos sexo. Maiatzaren 7an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aqui hay madera.**

Toma el dinero y corr(omp)e. Maiatzaren 8an, igandean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Migel Munarriz eta Marta Juaniz.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Gasteizko urtegia-Altsasu. Maiatzaren 7an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 103 km. **Zikloturista taldea.**

Xabierko gaztelua. Maiatzaren 8an, domekan, 6:45ean Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen Altsasuko bajaratik. 118 km.



Pintura

Artea azaltzen (bi koadro). Maiatzaren 10ean, asteartean, 19:30ean Altsasuko Haritza tabernan. **Hizlaria: Kitz Mendiola.** Sarrera: 2 euro.

Erakusketak

Pintura erakusketa. Maiatzaren 8an, igandean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean. **Pintura ikastaroko ikasleak.**

Joan etorriko bidaiak. Maiatzaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortian. **Txefo Artea Tailerra.**

Nire lorategiko arrosari. Maiatzaren 10etik 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortian. **Itziar Nazabal.**

Hitzaldiak

Independentzia VS langabezia eta prekaritatea. Maiatzaren 6an, ostiralean, 19:30ean Irurtzongo udaletxean eta maiatzaren 12an, ostegunetan, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Hizlariak Jone Etxeberria eta Joseba Permach. Sortu.**

Irurtzongo kirola eta kirolariak. Maiatzaren 6an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzongo Kultur Etxean. **Mahaingurua.** **Hizlariak:** Tamara Angulo, Fermin Escudero, Jose Javier Zabaleta, Imanol Arregi, Txomin Nagore, Mikel Lasarte, Alejandro Maya eta Luis Martil. **Moderatzailea:** Mikel

Goldarazena. **Irurtzongo Kirol Ekitaldiak.**

Sendabelarren eta kostu txikiko natur-terapien iraultza goxoa. Maiatzaren 9ean, astelehenean, 18:00etan eta 20:00etan Arbuzko kanpineko Amari yoga aretoan. **Hizlaria: Josep Pàmies.**

Respuestas combativas ante la violencia matxista. Maiatzaren 12an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Neskendako. Altsasuko mugimendu feminista.**

Kirola eta osasuna. Maiatzaren 12an, ostegunetan, 20:00etan Irurtzongo Kultur Etxean. **Hizlaria: Eduard Casanovas (OREKA, fisioterapia eta osteopatia).** **Irurtzongo Kirol Ekitaldiak.**

Bertsolaritza

Sakanako bertso eskola. Maiatzaren 12an, ostegunetan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Talde jolasak. Maiatzaren 7an, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Foru plazara irteera. Maiatzaren 8an, domekan, 17:00etan. **Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea.**

Aniztasunaren II. Astea. Maiatzaren 9tik 13ra, astelehenean ostiralerara (asteazkena salbu), 15:00etatik 16:30ean Altsasuko Zelandi eskolako jantokian. **Gurasoendako saioak.**

Taekwondo erakustaldia. Maiatzaren 9an, asteartean, 18:00etan Altsasun.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 6an, ostiralean, 20:00etan Arbuzko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Memoria historikoa, ekitaldia. Maiatzaren 7an, larunbatean, 12:30ean, kultur etxean udala bilkura berezia eta, 13:00etan, Sutegin. **Olazti Memoria taldea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Altsasu



Zinta dantza dantzatzeko prest.

Dantzari txikiak Altsasun elkartu ziren

Altsasuko Musika eta Dantza Eskola-ko dantzari txikiak eta Urretxuko dantza taldekoak Altsasun elkartu ziren larunbatean. Goizean kalejira egin zuten eta erromeria arratsaldean. **+www.guaixe.eus**

Mendezek erakusketa despeditzeko festa antolatu du

Larunbatean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean

Txefo Mendez *Joan etorriko bidaiak* erakusketa domekan despeditzeko da. Zurez eta banbuz egindako eskulturak eta koadroak dira nagusi erakusketan. Erakusketak ez zuen mustutze ekitaldirik izan, baina bai itxiera festa. Mendezek emanaldi akustikoa prestatu du biharko. Bero altsasuarra, Jone olaztiarra, Unai eta Iruñeko beste musikari batzuk poesia, gitarra eta abestiak eskainiko dituzte. Tea dastatzeko aukera izanen da ere.

Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

MEKATRONIKA INDUSTRIALA (Goi Maila Zikloa)
MANTENU ELEKTROMEKANIKOA (Ertain Maila Zikloa)
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA (Ertain Maila Zikloa)
MENDI ERTAIN KIROLTAKO TEKNIKARIA (Ertain Maila Zikloa)
MERKATARITZA-ZERBITZUAK (Oinarritako Lanbide Heziketa)
TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA (Profesionaltasun Agiria)
EKIPO INDUSTRIALAREN MANTENTZE LANAK ETA MONTAKETA MEKANIKOA (Profesionaltasun Agiria)

EUROPAKO GIZARTE FUNTSA
FONDO SOCIAL EUROPEO

Ikastetxe Bikaina

Ate irekiko jardunaldia
maiatzak 11, asteazkena,
arratsaldeko 4etatik 8ak arte.
Hitzaldi berezia arratsaldeko 6etan.

Aurre izen emateko epea:
Maiatzaren 9tik 13ra.

Tlfonoa: 948-564-815
[WWW.IFPALSASUA.NET](http://www.ifpalsasua.net)

KALTE-ORDAINAK KOBRATUTA ITXI DA GAMESAKO LAN GATAZKA: Nafarroako Lan-arloko 3 zk.ko Epaitegiak onetsitako kalte-ordainaren kobrantza egin ondoren, ELAK jakinarazi duenez, Gamesako gatazka juridiko-sindikala bukatu da. Gatazka 2010ean hasi zen Gamesak Altsasuko lantegia itxi zuenean.

narazi duenez, Gamesako gatazka juridiko-sindikala bukatu da. Gatazka 2010ean hasi zen Gamesak Altsasuko lantegia itxi zuenean.

ezkaatza >>

>> Olatzagutia

36an hildakoen eta errepresaliatuei oroimena eta aitortpena

Larunbatean, 12:30ean, udal bilkura berezia kultur etxean eta 13:00etan ekitaldia memoria Sutegin

Olazti Memoria taldeak, udalaren laguntzaz, memoria historikori buruzko ekitaldia antolatu du biharko. Memoria historikora aurreneko hurbilpena izan nahi du biharko ekitaldiak. Haren bidez "herritarren zerbitzura zegoen estatu baten zilegitasuna defendatzeagatik erailak edo errepresaliatuak izan ziren pertsona haiei aitortza eta omenaldia" egin nahi zaie. 33/2013 Foru Legean jasotakoari jarraituz, ekitaldi horrekin 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildakoei eta errepresaliatutakoiei aitortza eta erreparazio moralagatik egin nahi zaie. Udalak bilkura berezia egingen du kultur etxean eta gero Sutegi parkean ekitaldia izanen da.

Francok estatu kolpea eman zuela 80 urte beteko dira aurten. Gerra



Ekimena Olazti Memoria taldeak antolatu du, Olaztiko Udalaren laguntzarekin.

eta errepresioa ekarri zuen horrek. Eta Olatzagutia ez zen salbuespena izan. Gaur egunera arte, Olazti Memoriak argitalpenetatik eta olaztiarren lekukotzetatik jasotako testigantzen arabera 17 olaztiar erail zituzten (gazteenak 17 urte zituen); beste bost frontean hil ziren; gutxi-

nez 27 olaztiar espetxeratu zituzten eta batzuk lan-zelaietan lanean aritzera behartu zituzten; bost funtzionario lanpostua galdu zuten; gutxienez 10 olaztiarri ondasunak kendu zizkieten; bi errefuxiatu egin ziren eta 11 emakumeri ilea moztu eta publikoki umiliatu zituzten.

>> Altsasu

Aniztasunaren astea Zelandi eskolan

Gurasoei zuzendutako saioak arratsaldean izanen dira. Ikasleek kultur aniztasunari buruzko jarduerak herenegun eta asteazkenean izanen dituzte

"Joan den urteko arrakasta ikusirik, bigarrenaz Aniztasunaren Astea antolatu da Zelandi eskola publikoan". Bego Zestau Baraibar Sakanako Mankomunitateko Migrazio eta Aniztasun teknikariaren azalpena da. Zelandi eskolako hezkuntza komunitatea elkar hobetzeko eta elkarren arteko harremanak estutzeko saioak antolatu dira astelehenean ostiralera, asteazkenean salbu. Ikastetxeko jangelan elkartuko dira. Migratzaileek Altsasun bertan izandako bizipenak kontatuko dituzte lehen saioan. Ondoren bakoitzaren sorterrian hezkuntza, osasungintza edo sukaldaritza nolakoa den azaltzeko saioak ere izanen dira.

Ikastetxean bizi den kultur aniztasuna azalertzeko balioko du programazioak. Zestaurekin batera berau antolatzen Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, eskola, Zelandiko guraso elkarte eta ama talde bat aritu dira.

Ikasleen bidaiak

Herenegun eta asteazkenean Zelandiko ikasleak munduko bost etxe-



Egitaraua

>> **Maiatzak 9, astelehena**
15:00etatik 16:30era Mundutik Altsasura: zailtasunak, nahiak...

>> **Maiatzak 10, asteartea**
15:00etatik 16:30era Munduan barrena hezten.

>> **Maiatzak 11, asteazkena**
Goizez, txoko anitzak ikasle goazteko.

>> **Maiatzak 12, osteguna**
15:00etatik 16:30era Munduko osasungintzak.

>> **Maiatzak 13, ostirala**
15:00etatik 16:30era Munduko jakiak.

etara "bidaiatuko" dute. Horrela, Txina, Maroko, Portugal, Altsasu eta Alemaniako hainbat gauza ezagutuko dituzte: jakiak, istorioak, kondairak, janzkerak...

SAKANA

Euskara irakurtzearen saria

Euskarazko literaturara lotzeko gonbidapena da Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina, Euskaltzaleen Topaguneak Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren eta



beste hainbat eragileren laguntzaz antolatu duena. Herrietako liburutegietan liburu maileguan hartu, hura irakurri eta iritzia eman ondoren, euskarazko liburu bat erosteko deskontu txartela jasoko da. Sakanako liburu-dendetan liburuak erostekoan deskontua izanen da. Liburu norbaiti edo norberari oparitu ahal zaio.

Horixe da IGOren dinamika. Gainera, hartan parte hartzen duten guztien artean zozketak izaten dira. Kanpaina indarrean den lehen hilabetearen parte hartu duten guztien artean 30 euroko zortzi txeki zozketatu dira eta honakoak izan dira sarituak: Frida Mendibe (Arbizu), Marisa Zabala (Etxarri Aranatz), Garazi Albarracín (Olatzagutia), Mariage Perez (Ziordia), Yahya El Bahkaoui (Etxarri Aranatz), Asier Zelaia (Altsasu), Iñigo Orella (Etxarri Aranatz), Josebe Sagastibeltza (Arbizu). Maiatza akaberan beste zortzi txeki zozketatuko dituzte.

Erailak

Meliton Agirre Lezea, Juan Arregi Pozueta, Epifanio Amiama Fernandez, Domingo Bados Garcia, Eustaquio Bengoetxea Bengoetxea, Miguel Bengoetxea Garabietta, Hilario Goikoetxea Agirre, Felix Jimenez Aguilar, Felix Jimenez Pinel, Domingo eta Felix Jimenez Robles, Fco Lopez Ezker, Migel Mikelez Agirre, Moises Pierola Acedo, Faustino Rubio Bujanda, Gregorio Sarasola Arizkorreta eta Migel Bergara Bereau.

Frontean hilak: Alejandro Ezker Gastaminza, Eduardo eta Gregorio Fdez Otegi, Lucas Galbete Ganuza eta Jesus Lezea Galbete.

Espetxeratuak: Andres Gastaminza Galarza, Antonio España Araña, Dimas Pozueta Gastaminza, Emilio Baztarrika Galdos, Eulogio España Exposito, Fdo Lasa Otegi, Florencio Agirre Lezea, Florentino Rubio Gonzalo, Fco Bengoetxea Garabietta, Fco Lopez Albeniz, Hilario San Roman Ormazabal, Jesus Lopez Albeniz, Jesus Migel Rivero Sanchez, Jose Askargorta Lasa, Jose Galbete Lopez, Jose Otegi

Ariztimuño, Jose Rubio Bujanda, Jose Zubikoa Exposito, Juan Rubio Sagasti, Julian Gastaminza Eraso, Leandro Etxandia Gastaminza, Manuel Gastaminza Galarza, Mateo Hilario Sarasola Arrizabalaga, Migel Etxandia Gastaminza, Rafael Lasa Otegi, Tomas Aramendia San Roman eta Valeriano Santamaria Acedo.

Araztuak: Manuel Amiama Urreta, Fco Aramendia San Roman, Angel Arnaiz Salas, Pablo Guarder Panero, Angel Gurmindio Etxandia, Feliciano Larrion Martinez, Tomas Lopez Albeniz, Martina Lopez Lopez, Teodoro Nazabal Bengoetxea, Julian Pozueta Galarza, Migel Rekarte San Migel, Sofia Rubio Bujanda, Pablo Uriarte Allende eta Antonio Zubieta Gorriti.

Ilea moztutako emakumeak
Delfina, Encarnacion, Maria eta Pilar Amiama Fdez, Dionisia Etxandia Gastaminza, Josefa, Juliana eta Maria Gastaminza Lezea, Domitila Guerra Gonzalez, Maria Olmos Bayon eta Patricia Rubio Bujanda.

Errefuxiatuak: Jacinto Zeberio Imaz eta Toribio Dorronsoro Besansa.

independentzia
VS
langabezia eta
prekarietatea

HITZALDI - AURKEZPENAK

+ SAKANAKO ERREALITATEA
ETA EGINDAKO IBILBIDEA

M6 IRURTZUN
19:30 Udaletxean

M12 LAKUNTZA
19:00 Kultur Etxean

Jone Etxeberria
Joseba Permach



Aingeru Mikeo

EITB: agurrik ez, gero arte baizik

astekoa

Atzotik, Nafarroan ez dugu Euskal Telebista TDT bidez ikusteko. EITBk Nafarroan emititzeari utzi dio, Estatuko Industria Ministerioak egindako isun mehatxuak tarteko. Eta hori guztia, UPNk jarritako helegite baten ondorioz.

Ez ditugu ikusiko Xabier Euzkitze eta Josean Tolosa pilotaren partiden ahozko azalpenak ematen, ezta Ane Urrutia eguraldiaren iragarpena egiten, ezta Julen Iantzi lesakarra *El Konkis* aur-

kezten, eta ezta Julen Telleria *Guta Gutarrak* gaztetxoaren ikuskizuna aurkeztzen. Horiek denak eta beste asko desagertu egingen dira gure egongelako tresnatik, eta baita, neurri batean, geure bizitzatik ere.

Ez da historia samurra izan Nafarroan euskarazko telebista izatearen borroka, urte asko, ilusio asko eta elkarlan asko bizi izan dituen. Inozentzio Aierbe San Migeleko kaperau uhartearrak harrotasunez azal-

tzen zuen Guardia zibila bertaratu ere, berak giltzapeturik zeukala sakristian EITBren antena, haiek harrapa ez zeaten. Udalen, herritarren eta Ikastolen sareak sustatu zuten antenen hedapena. Azken aldi honetan, baita Nafarroako Parlamentuak eta Aldaketaren Gobernuak ere aldarrikapena eta kudeaketa egin dute EITB era normalizatuaren ikus dadin. Hala ere, ez da nahikoa izan.

Ez da nahikoa izan UPN alder-

diaren setakeria, itsukeria eta maltzurkeriagatik. Edozein gizartetan, zeinetan demokrazia, elkarbizitza, kultura eta jakintza garrantzitsuak izanen XXI. mendean, teknologien eta komunikazioaren aroan, informazioari halako atekak ixtea. Baina Nafarroan posible da. Posible da alderdi politiko garrantzitsu bati bidezkoa iruditzen zaiolako beraiek bezala pentsatzen ez duen hiritargoa kulturalki zapaltzea eta deusez-

tatzea, hain zuzen ere, euskal kultura bizi duten nafarrak. UPN da Nafarroaren berezko jatorria-ri uko egin dion lehenengo belaunaldia, aurreko belaunaldietan abertzaleek, liberalek, karlistek, integristek eta abar; denek argi zutelako nafarren euskal jatorria. Horra hor UPNkeuskara eta Euskal Herriaren "asmakizunaren" aurrean duen sukar-amets eroaren oinarria.

EITB agurrik ez, gero arte baizik.

hara zer dien

Berlingo harresia bota eta hamaika eraiki???

Berlingo harresia botazenetik 25 urte pasa badira ere, gero eta gehiago dira gaur egun eraikitzen ari direnak Europak zehar: Ceuta eta Melilla; Israel eta Jisjordania; bi Koreak; Uzbekistan eta Kirgizistan; Arabia Saudi eta Irak; Maroko eta Sahara ekialdekoa; Irak eta Kuwait; India eta Bangladesh; Botsuana eta Zimbaue; EEBB eta Mexiko; Bulgaria-Turkia/Grezia...

Milaka poliziek zaindutako

harresi igaro ezinak dira gaur eraikitzen direnak; gosetea, gerrak, pobrezia eta miseriatik ihesi doazen milioika pertsonen zonalde zurratzen baterako eskubidea urratzen dieten lotsaren (edo lotsarik gabeko) harresiak. Gaur egungo Europaren balio demokratikoen krisia agerian uzten dituzten harresiak, eta horrekin batera, krisi politikoa eta humanitarioa.

2015ean esan zitzaigunez, esta-

tu espainiarrak 8.000 errefuxiatutik gora hartu behar bazituen ere, urte bukaeran 18 besterik ez zituen hartu. Gauza bera Frantziari (300etik 7 soilik), Nafarroari 16 besterik ez... Eta hau guztia gutxi balitz, Austriari migrazioen kontrako legerik zorrotzenetakoa onartu berri du. Babeserako eskubidea murriztuko duen legea. Hori nahiko ez, eta 400 metroko harresia eraikitzeak asmoa dauka Ita-

liako mugan.

Europak ezin uka dezake bere mugetan gertatzen ari dena. Eta munduan zein den bere papera birplanteatu behar luke. Orain Europa datozenak, Europar Batasunak honen guztian duen erantzukizunaz gain, norberakoek ere ulertu behar dugu, erabateko erantzukizuna

ez badugu ere, nolabaiteko zerikustekoa ere badaukagula honetan guztian.

Eta zer egiteko asko ere: ongi informatuak egotea, iritzia kritikoa izatea, mugitzeko grina, eta enpatikoak eta solidarioak izatea okerren pasatzen ari den harekin.

Ez dadila egoera hau gehiago luzatu, ez gure izenean behintzat.

Sakanako Immigrazio Zerbitzua

objektibo tik



Oier Sanjurjo eta Pucko Etxarri Aranatzek:

Osasuna Fundazioak antolatuta, Osasunako Oier Sanjurjo eta Pucko jokalariek Etxarri Aranatzeko kultur etxean izan ziren asteazkenean. Izan ere, Etxarri Aranatzeko Kultur Eskola eskaintzen da, bi txandatan. Eskolan parte hartzen duten 43 haurrek eta ekitaldira hurbildu zirenek Sanjurjoren eta Puckoren azalpenak entzun zituzten, nahi adina galdera egin zizkieten eta eurekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten. Zozketak eta beste ere izan ziren. Ekitaldian Osasuna Fundazioako presidentea, Osasunako babesle Lacturaleren ordezkariak, Etxarri Aranatzeko Silvia Marañon zinegotzia eta beste izan ziren.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitx Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gko-munikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuzordeta

URBASA FOSIL AURKIKUNTZEN MAPA-MUNDIAN: www.paleobiodb.org web orriak munduko fosil aurkikuntzen mapamundia du eta bertan Urbasa agertzen da. Web orria

fosiletan adituendako da. Taxonomia zientifikoekin batera, geologia aroen izen zerrenda oro zehatza erabiltzen ditu.

sakanerria >>

>> **Altsasu**

Euskaldun berriei aitortza eLe festan

Larunbatean, 12:00etan, Altsasuko Foru plazan 18 sakandar omenduko dituzte eta antolatu den mintzodromoan euskaldunak parte hartzerantz gonbidatu dituzte

Euskalduntzeko ahalegina egin duten pertsonen eta hizkuntza jariora hobetzeko mintzakide programan luze daramaten sakandarrak omenduko dituzte bihar: eLe festa izena eman diote praktika eta ospakizuna uztartuko dituen ekimenari: "ekitaldiak ikasketa prozesua despiditu eta euren burua euskaldundu dutenei eta euskaraz aritzeko soltura bila. Mintzakide programan izena eman dutenak omentzea du helburu".

Eta hortik heldu da ospakizunaren izena ere. Batetik, "elea, hitza edo berba da. Baina, bestalde, L hizki maiuskulak ibilgailuen gida baimena atera berri dutengidarietako autoetan eramatean dute. Ikasi ondoren praktikatzeko ari direla adierazten du". 18 omenduek, aitortza gisa, hasierako ekitaldian opari bana jasoko dute. Ondoren, euren komunitatearekin euskara praktikatzeko aukera izanen dute, mintzodromoan antolatu baita. "Haiekin euskaraz hitz eginez omenduei egindako ahalegina eskertuko diegu. Eskertu, Sakanako euskaldunon komunitatea

zabaldu eta handitu egin dutelako eta lehendik euskaldunak garenak euskaraz jende gehiagorekin hitz egiteko aukera eskaini digutelako".

Sakanako AEKk, Sakanako Mintzakide programak, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak eta Guaixe fundazioak antolatu dute eLe festa eta sakandarrak bertan parte hartzerantz gonbidatu dituzte. Azaldu dutenez, haurrentako txokoa izanen da, gurasoek mintzodromoan lasai parte hartu dezaten. Ospakizuna auzatearekin despidutako da.



Astean behin euskara praktikatzera elkartzen diren mintzakideetako batzuk.

>> **Etxarri Aranatz**

Administrari laguntzaile lanetarako zerrenda osatzeko udalaren deialdia

Etxarri Aranatzko Udalak administrari laguntzaile lanetan aritzeko zerrenda sortu behar du, beharren arabera etorkizunean behin behineko kontratazioak egiteko. Interesa dutenek honako baldintzak bete beharko dituzte: adin nagusia, eskola-graduatu, 1. mailako Lanbide Heziketa edo hauen baliokidea, C1 euskara maila eta deialdian aipatzen direnak. Izena emateko epea hilaren 13an, 14:00etan, despidutako da. Instantzia, nortasun agiria eta merituaren zerrenda aurkeztu beharko dira. Euskara ziurtagiririk ez dutenei maiatzaren 16an, 9:30ean, eginen zaien proba, Utzaganen, Arbizuko industrialdean. Azterketa teoriko praktikoa, berriz, 18an eginen da, 8:00etan, Etxarri Aranatzko udal liburutegian. Deialdiaren oinarriak www.etxarriaranatz.eus web orrian, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan kontsultatu daitezke.

SAKANA

Ikasleak Pako Etxeberriarekin

Altsasu institutuko DBHko 4. mailako ikasleek atzo Pako Etxeberriaren hitzaldian izan ziren Iortia kultur gunean. Forentseak hilobien aurkikuntza, indusketa eta identifikazioak nola egiten dituzten azaldu zien, baita hainbat pasarte ezagun kontatu ere, batez gure inguru hurbilekoak. Institutuko Gizarte Mintegiko irakasle Ander Leonek argitu digunez, ikastetxean zortzi urte daramate memoria historikoa lantzen. "Frankismoan Sakanan eguneroko bizimodua azaltzen duten ahozko testigantzak jasotzea da gure helburua".

Ahozko historia hori jasotzeko ikasleek adineko pertsonak elkarriketatuta dituzte. Makina bat gairi buruzko galderak egin dizkiete: haurtzarora, eskola, gaztetasuna, jaiak, ezkontza, bikote harremanak, lana, politika, erlijioa... Dagoeneko 300 bat elkarriketako artxiboa dute, ikasleek bakoitzaren transkripzioarekin, laburpenarekin eta audioan edo bideoan elkarriketatu jasotzen duen diskoarekin. Egitasmo horren barruan, ahozko historia jasotze-



Gerra Zibilaren berri eman zien Etxeberriak Institutuko ikasleei.

ko metodologian aditua den Laura Benadiba historialari argentinarra ezagutu zuten ikasleek joan den urtean.

Errepresaliatutako emakumeak bihar gogoan

Haien omenez Sartagudako Memoriaren Parkean bihar mustuko den eskultura sustatzeko laguntza eman dute Irurtzun, Lakuntza eta Ziordiko udalak

Nafarroako 58 Udalek, tartean Irurtzun, Lakuntza eta Ziordikoek, Gerrate Zibilean eta Frankismoan errepresaliatutako emakumeen omenez Sartagudako Memoriaren Parkean larunbatean mustuko den eskultura bat sustatu dute. Rodrigo Romeroren lana da, Nafarroako Afusilatutako Familien Elkarrekin eta Pueblo de las Viudas Elkarrekin sustatuta, "duintasunarekin bizi eta sufritu zuten emakumeen omenez" egindakoa. Obraren balioa 35.500 eurokoa da eta Nafarroako 58 udalek eskultura sustatzeko diru ekarpenak egin dituzte, Irurtzongo, Lakuntzako eta Ziordiko udalak tartean. Eskultura larunbatean Sartagudan ospatuko den Nafarroako Memoria Historikoa- ren Egunaren barruan mustuko da.



Aldatzea jarrera bat da. Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria. Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km): 119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

>> Iturmendi



Festa giroa bueltan etorriko da.

San Migel festak hemen dira

Maiatzajaso ondoren, San Migel festen txanda iritsi zaie iturmendiarrei. Gaurko eta biharko ospakizun egitaraua antolatu dute herriko eragileen artean eta sakandarrak Iturmendiko festetaz gozatzera gonbidatu dituzte.

Egitaraua>> **Maiatzak 6, ostirala**

20:00etan Triki-pintxo-potea gaztetxean eta bi elkartetan.
Ondoren bokata-jatea, gaztetxean.

>> **Maiatzak 7, larunbata**

13:00etan Herriko dantzariak plazan. Auzatea
17:00etan Pilota partiduak frontoian. Gero herri kirol apustuak.
20:00etan Auzatea plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Txikiband taldearekin.
22:00etan Herri afaria Aitzkozar elkartean.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Txikiband taldearekin. Eta gaupasa Gaztetxean eta Aritzaga elkartean.

>> Altsasu

Asteburu bete ospakizun

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako Alde Zaharreko festak, Europako Musika Eskolen Jaialdiko gaurko eta biharko kontzertuak eta domekako artisau azokak dira hiru egun hauetako ospakizunen ardatza. AGAk ospakizunen aurreko egitaraua prestatu zuen. Hala, asteartean Nafarroako proiektu sostengaezinen egoeraren berri eman zuten Sustrai Erakuntza fundazioko kideek. Atzo, berriz, Lorea Agirrek eta Onintza Iruretak euskara eta feminismoa izan zuten hizpide emandako hitzaldian. Ondoren, afari begetarianoa izan zen; aurreko guztia bezala, gaztetxean.



Esku-langileak lanean ikusteko aukera izanen da domekan. Irudian ehozirik lanean.

Egitaraua>> **Maiatzak 6, ostirala**

17:00etan Haurrendako jolasak.
17:15ean Kalejira Altsasuko Musika eta Dantza eskolako perkusio taldearekin.
18:00etan Emusik kontzertua Koloniako haize orkestra sinfonikoa, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako konboak eta eskolania eta Erkudengo Ama abesbatza.
18:30ean Txokolate-jana.
22:00etan Aquel invierno antzezlan. Iortia antzerki tailerra, kultur gunean.
22:00etan Skalari rude band, Ritxi Skatalite eta Roberto Tortuga. Festak Lezea

tabernan segituko du.

>> **Maiatzak 7, larunbata**

11:00etan Emusik kontzertua: Altsasuko Musika eta Dantza eskolako dantzariak, Burundar Txistulariak, Hungariako tradiziozko musika tresna taldea eta Italiako abesbatza, soka orkestra eta rock taldea.
12:00etan Ele festa. Euskaldun berriei aitortza eta mintzodromoa.
12:30ean Hamabitakoa.
13:30ean Aizkora apustua.
14:30ean Herri bazkaria, plazan. Ondoren, Goizargi txarangarekin Burunda pilotalekura.
17:00etan II. Pilota goxua txapelketaren

finalak. Ondoren, magrak gaztetxean.

18:00etatik 21:00etara Josketa, lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxea eraikinean.
20:00etan «Tengamos el sexo en paz» antzezlan. Aquí hay madera taldea, Iortia kultur gunean.
23:00etatik 3:00etara Dantzaldia Eingo al deu taldearekin.

>> **Maiatzak 8, domeka**

9:00etan Dianak Zangitu fanfarrearekin, Alde Zaharrean.
10:30etik 14:30era Artisau azoka eta taloak, Foru plazan.
11:00etatik 14:00etara Josketa,

lenteria eta ehoziri ikastaroetako lanen erakusketa, Gure Etxea eraikinean.

13:30ean Bildots zozketa.
17:30ean Ludoteka eta gazte txokoa (+12 urte) plazara! Ginkana, tailerrak eta jolasak.
19:30etik 21:30era Dantzaldia Luis eta Ana bikotearekin, Foru plazan.

Oharrak:

- Larunbatean, 12:00etatik 24:00etara, Gartzia Ximenez kalea oinezkoendako izanen da.
- Egurdiak lagunduko ez balu, Emusik kontzertuak Burunda pilotalekuan izanen lirarteke.
- Larunbatean Jai Busak ohiko ordutegia izanen du.

22 artisau postu

Lenteria eta ehoziri udal tailerretako kideen lan mahaiekin batera beste hainbat artisau lanean ikusteko aukera izanen da domeka goiz partean Altsasuko Foru plazan: Anjel (ardi-moztaillea), Patxi Ami-

llano (gaztagilea), Marian Mayo (irulea), Alejandro Rellan (makilak), zura lantzeko eskola, Asier Crespo (larrua), Alvaro Garcia (zeramika), Iñaki Villanueva (zura), Cañameres anaiak (egurra), Batuta (berziklapentailerra), Juan Manuel Herreiro (kilikiak eta kiliki tailerra), Agus-

tin Lopez de Zubiria (isetsak edo ilarriuntzia), Ramon Paniagua (momotxorroak), taloak, Santi Saez (zaharberritzea), Pedro Lazkoz Marin (harria), Rodolfo Rivero (uztarriak), Ion Dufurrenea (kai-kuak), Carmelo Llena (pilotak) eta Itziar Nazabal (margoa oihalean).

Talogile taldea gosetiak asetzeko lanean izanen da: Tiscar Duran, Maite Yeregi, Arantza Asurabarrrena, Mari Navarrete, Maripi Larrea, Juanita Mazkiaran, Idoia Ganuza, Mari Jose Elizalde, Petri Garcia, Belen Rubio eta Jose Luis Fernandez.

SAKANA**Ennecorekin bat**

Uharte Arakilgo, Bakaikuko eta Iturmendiko udalek eta Nafarroa Bizirik fundazioak lankidetzaz hitzarmen bana sinatu dute. Azken horrek sustatzen duen Enneko, haritzaren memoria egitasmoa legegintzaldi osoan lagunduko dute udalak. Laguntza hori eskertzeko Nestor Basterretxeak parkean jartzeko diseinatu zuen eskulturaren errepika jaso du Uharte Arakilgo Udalak.

>> Altsasu

Suarez euskaltzain urgazle

Euskaltzaindiak osoko bilkura egin zuen ostiralean Iruñean eta euskararen akademiak sei nafar euskaltzain urgazle izendatu zituen. Horien artean dago Castillo Suarez Garcia altsasuarra. Euskal Filologian lizentziaduna. Idazlea, poesia eta haur literatura generoak landu ditu. Lanbidez euskara teknikaria da, azkeneko 13 urteetan Sakanako Mankomunitatean. Bada beste euskaltzain urgazle sakandar bat: Jose Luis Erdozia Mauleon etxarriarra, 2006ko maiatzaren 26tik.

+www.guaixe.eus

Maiatzak gora

Soken eta oinarrien laguntzaz jaso zuten etxarriarrek maiatza.



Haize hotz eta elurfitsak erortzen zirela aritu ziren bakaikuarrak lanean.



50 bat iturmendiarren artean 24 metroko maiatza jaso zuten.



Mendi gainean eta herriko parkean maiatza bana jaso zituzten ziordiarrek.

» Altsasu

Auzo-konpostagailuak martxan jarriko dira

Maiatzaren 13an jarri nahi dira martxan. Izena eman nahi duenak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak auzo-konpostagailu bana Otain eta Navarro Villoslada ikastetxea zenaren ondoan jarri zituen 2014ko abenduan. Alde Zaharreko eta Otai aldeko 33 familiek eta zabalguneko bik auzo-konposta egiteko izena aspaldi emana

dute. Mank-etik azakdu dutenez, auzo-konpostagailu bakoitza, gehiezin, 35 familiek erabiliko dute.

Bai batean bai bestean auzo-konposta egiteko izena emateko aukera dago. Altsasuko zabalgunean Hondakin Zerbitzuak kartelak jarri ditu interesatuek izena eman dezaten. Hilaren 11ra arteko epea izanen da. Eskaerak jasotze ordenaren arabera onartuak izanen dira.

Jende gehiagok izena emanen balu itxaron zerrenda osatuko litzateke.

Altsasun auzo konposta egiten maiatzaren 13an hasi nahi dute. Hala izateko, izena emanda daudeneko argibide hitzaldiak izanen dira. Haietan konposta sortzeko prozesua azaldu eta materialak (pertzta, gida eta giltza) banatuko zaizkie. Bi auzo-konpostagailuak martxan jartzeko baldintza baka-

rra dago: izena eman dutenen artean gutxienez boluntario bat egon dadila. Bere edo beraien egitekoa mantenu egokiaz arduratzea litzateke: buelta ematea, lehorra bada go ura botatzea, zerbitzuari arazokomunikatzea... Altsasuko Udalak auzo-konpostagailuen inguruan dagoen eremua garbitu eta noizean behin txukun uzteko konpromisoa hartu du.



Bi gazte auzo-konpostagailuen ondoan.

Udalak haur eskola egiteko erabakia hartu du

Lanak udan hasi eta abenduaren 31rako despedituak egotea nahi du udalak. Gaur egun 42 ume daude haur eskolan.

Aho batez Altsasuko Udalak onartu zuen Txiribulo udal haur eskola egiteko proiektuaren eta lanen exekuzioaren konpromisoa. Horrekin batera, lanak egiteko aurrekontu aldaketa onartu zuen ere. Navarra Villoslada eraikineko beheko solairuan egonen da udal haur eskolaren egoitza. Lanak egiteko enpresek euren proposamenak aurkezteko hilabete izanen dute. Aukeraturakoak 4 hilabete eta 3 astetan despeditu beharko ditu lanak (2009an lanen herena egin zen), abenduaren 31rako. Horrela, udal haur eskola 2017-2018 ikasturterako erabilgarri egongo da.

Txiribulo haur eskolako lanek 585.000 euroko aurrekontua dute. Haietara Nafarroako Gobernuak 250.000 euro bideratu ditu. Horretarako hitzarmena sinatu behar da eta zirraborroaren gainean lanean ari dira aldeak gaur egun. Altsasuko Udalak lanetara 335.000 euro bideratu ditu. Haietatik 258.270,01 euro moduluen sutearen ondoren aseguru-etxeak ordainduta dira (gazte guneko egokitzapenean zer bait gastatu zen) eta gainontzeko 76.729,99 euroak udalaren diruzaintzako gerakinetik aterako dira. Beraz, udalak bere zerbitzu baterako egoitza egiteko ez du zorpetu beharko.

Haur eskola berria

Navarro Villoslada eraikinerako 2009ko proiektuak zortzi unitate eta 1,3 milioi euroko aurrekontua zen. Irailaren 3ko sutearen ondoren egindakoa 6 unitate eta 900.000 euroko aurrekontua zuen. Hezkuntza Departamentutik azken 10 urteetako jaiotzak eta matrikulazioak kontuan izanik lau unitateko haur eskola egitea egokiena litzatekeela adierazi zuten. Txiribulo berriak 1-2 urteko umeendako unitate bat izanen du, 2-3 urteetako beste bat, unitate mixta bat, bularreko umeendako unitatea eta jangela izanen ditu.

Txiribuluko hezitzaileak bilkuran izan ziren eta erabakiarekin "oso pozik" atera ziren, "suziriak botatzeko moduan. Altsasu-

ko familia guztien beharrak asetzeko moduko eskola izanen dugu". Matrikulazio epea hilaren 20tik 30era izanen dela gogorarazi zuten. Moduluak erre zirenean "zer egin" jakin gabe egon zirela aitortu digu Rosa Goikoetxea hezitzaileak. Gaineratu du gaur egungo behin behinako egoitzan "leku gutxi dugu baina gure lanarekin segitu dugu". Goikoetxeak haur eskola zazpi egoitzetan ezagutu du: Domingo Lumbier, Navarro Villoslada, mojen ikastetxea zena eta obrak egin dituztenean ludotekan, liburutegian, Zelandia eskola eta moduluetan. Haur eskolaren diseinuan hezitzaileek esku hartu dutela esan digute.

Iritziak

Javier Ollo Martinez alkateak (**Geroa Bai**) aldeko botoa ematerakoan esan zuen udalak "Txiribulo udal haur eskolarekin zor eta ardura politiko eta etikoa" duela. "Hezitzaileek egiten duten lan duina legegintzaldi honetan behin betiko egoitza batean egin dezatela espero dut. Behin behinako egoitzetan urte asko eman dituzte eta bada garaia udalak ahalegin handia egin eta egoera konpontzeko".

Arantza Bengoetxea Intxausti (**EH Bildu**) baiezko botoarekin batera alkatearen eta departamentuaren gaiaren kudeaketarekin guztiz adosez zeudela adierazi zuen. "Uste dugu bai udalak nola departamen-



Beheko solairuak hartuko du Txiribulo udal haur eskola.

tuak ez dutela sakonean aztertu Txiokek bere azpiegiturak haur eskola han jartzeko egindako eskaintza. Hala egin balitz agian orain jarriko den dirua altsasuarren beste behar batzuetara bideratuko litzateke". Alkateak gaia kudeatzerakoan Ongizate Batzordeko lehendakariarekin harremanik ez duela izan adierazi zuen. Erabakia hartzerakoan udalarenaz aparte departamentuaren txostenak ere izatea nahiko lukezela esan zuen. Eta eskatu zuen udalak eta departamentuak sinatu beharreko hitzarmenean "beharrak berme guztiak jaso ditza la lana beharrezko baldintzetan egin dadin, epeak, ezusteak..." Alkateak argitu zuen Txiokek kontsultazio publiko-pribatu bat sor-

tzeko proposamena aurkeztu zuela (udala buru eta udalaren eta Txiokekaren bina ordezkariarekin batera). "Kudeaketa eta zuzendaritza pedagogikoa Txiokekaren eskutan izatea proposatzen zuten. Nafarroako Gobernuan galdetu genuen eta halako erakunde batek ez zuela toki-kontsultazioa izatera izanen eta ezin izanen zuela diru-laguntzarik jaso adierazi zuen". Geroa Bai kudeaketa eta zuzendaritza Txiokekaren eskutan gelditzearekin ados ez zegoela gaineratu zuen.

Juan Migel Perez Hurtado (**PSN**) adostasuna azaltzearekin batera, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza "motz" gelditu zela eta aurrekontua estaltzeko falta ziren 77.000 euroak ordaintzea eskatu zuen, "udalak diruzaintzako-gera-

kinetik ez gastatzeko". Javier Paz Ongizate Batzordeko buruak "eskertuak" egiteko arrazoiak zeudela erantzun zion: "diru-laguntza 900.000 euroko proiektuari eman diote, eta ez egingen den 585.000 eurokoari. Diru-laguntza txikiagoa litzateke orduan".

Virginia Alonso Apariciok (**Goazen Altsasu**) eskerrak eman zizkien urteetan haur eskola publikoaren alde lanean ari diren guztiei: garai bateko eta oraingo familiei, haur eskolako lantaldeari, udal teknikari eskerrak. "Poz handia sentitzen dugu. Zerbitzu hau gure herriko premia handienetako bat dela uste dugu". Javier Lopez Patu (**UPN**) proiektua aurrera egitearekin pozik azaldu zen. Lanak egiteko epekin kezka adierazi zuen.

Diruzaintzako gerakina

Gastu orokorretarako udalak duen dirua 1.895.417,15 € dira. Haietatik 244.337,9 € zintzilik dauden hirigintza gaietarako bideratuko dira. Aurki Otadiako 3. sektoreko epaia eman du auzitegiak. 900.000 euro gorde dira kontrako epaia izanez gero ordaindu ahal izateko. Beraz, erabilgarri 751.079,25 € ditu. Haur eskola egiteko 335.000 € bideratuko direnez, 416.079,25 € gelditzen dira. Talde guztiek adostuko dute zein inbertsio egin.

Ana Santano
Bularra ez da soilik elikadura
10 urte zuekin, zurekin

635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

GIXANE esteticista

KOSMETIKA TERAPEUTIKOA
OLIO ESENTZIALEKIN, AURPEGIA ETA GORPUTZA

Manikurak.....15€
Gelezko azazkala.....25€
Esmalteztatu erdi-iraunkorra.....18€
Betazalen tintea eta permanentea.....25€
Erradiofrequentzia.....20€
Garbiketak.....38,50€
Presoterapia
Depilazio elektrikoa eta aukera gehiago
Solariuma
Makilajea

948 563 029 · Zelai kalea 27, 2. esk. · Altsasu

>> Altsasu

Hamargarrenez, Gazte 2 Aste

Egitarauak Intxostiapunta gazte gunea ekitaldiz beteko du

Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak antolatutako aisialdi programak aurten 10 urte beteko ditu. Astelehenetik aurrera gazteek hainbat ekitaldiren eskaintza zabala izanen dute. Musika, kirolak, tailerrak, bertsoak, dantza, lehiaketak eta beste izanen dira hurrengo astean. Guztiak dohainik dira, mus txapelketa eta afaria izan ezik.



Gazteek hamaika ekitalditan parte hartzeko aukera dute.

Egitaraua

- >> **Maiatzak 9, astelehena**
18:00etan Gazte txokoko gazteen kontzertua.
- >> **Maiatzak 10, asteartea**
18:00etan Taekwondo erakustaldia.
- >> **Maiatzak 11, asteazkena**
18:00etan Sukaldaritza tailerra

>> Maiatzak 12, osteguna

18:00etatik Sakanako Bertso Eskolaren saioa.

>> Maiatzak 13, ostirala

18:00etan Herri kirolak.
19:30ean Sandwich lehiaketa.

>> Maiatzak 14, larunbata

12:00etan Dantzarimaren erakustaldia.
17:00etan Mus txapelketa (5 euro

bikoteak).

21:30ean Afaria (3 euro).

23:00etan Kontzertuak: Frenetik eta Raperos de Emaus.

>> Maiatzak 15, domeka

17:00etan 3x3 areto futbol txapelketa.

18:00etan Zunba.

19:00etan Gure gorputza artez apaintzen dugu. Helena Santanorekin.

>> Lizarraga

Gurelurrek portuko harrobiagatik salaketa aurkeztu du

Naturaren defentsarako Nafarroako funtsak, Gurelurrek Ingurumen Departamentuan salaketa aurkeztu dio. Erakunde ekologikak dioenez, Urbasa-Andia naturparkean dagoen harrobia "guztiz legez kanpo ari da eta ingurumen inpaktu nabarmenak eragiten ari da". Gurelurrek dioenez, harrobi jarduerarako baimena 1997ko abenduaren 31n iraungitu zen. Erakundeak kideek gogorarazi dute 14 urte daramatela dagokion kontseilariaren aurrean salaketa aurkezten eta harrobia berehala ixteko eskatzen. Kexu dira Gurelurrekoak: "gaian ardura duten erakundeek, Ingurumen Departamentua barne, 1999tik ez dute ezer egin". Urbasa-Andia naturparke-



Pala eta kamioia harrobitik karearria ateratzeko lanetan. GURELUR

ko patronatua joan den ostiralean bildu zen eta Gurelurrek gaia bileran azter zedin saiatu zen, baina departamentutik idatzizko erantzuna emanen zaiela jakinarazi zieten.

Nafarroako aurreko gobernuan

Lourdes Goikoetxea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria izan zen eta berak 2012ko ilbeltzaren 17an parlamentuan jakinarazi zuenez, harrobiko ustiapen baimena 2024ko otsailaren 2an despidituko da.

>> Altsasu

Amiantoak hildakoak gogoan

Euskal Herrian amiantoaren eraginez aurten zazpi hildako izan dira, haien artean Sunsundegui-ko langile ohi bat. LABek lan osanaren nazioarteko egunean, ostegunean, haiek gogoan izan zituen. Ehun bat pertsona elkar-tu ziren ekitaldian sindikatuak salatu zuen estatistika ez dela erreal "administrazioek ez baitituzte kasu asko aitortzen". Amiantoarekin kontaktua izan eta gaitza 45 urtetara agertu dadila gaitzatu zuen Gaizka Uhartek, hura produktu horren moduan etorkizunean kaltegarriak izan daitezkeen hainbat produktuekin gaur egun lan egiten dela nabarmendu zuen.

Honako eskaerak egin zituen LABek: enpresek eta erakundeek amiantoaren eraginak kontrola-



LABek amiantoan hildako langileak izan zituen gogoan.

latzea, administrazioek amiantoaren kaltetako beharrezko neurriak hartzea, amiantoak eragindako gaixotasunen erregistroa sortzea irizpide epidemiologikoak aintzat hartu-

ta, amiantoarekin lan egin duten enpresen erregistroa sortzea, produktuak kaltetutako egi hainbat arlotan laguntza ematea eta haiei kalte ordaina ordaintzeko funtsa sortzea.

SAKANA

Parlamentuak gobernuari: klinika sare publikoan sartu edo ituna sakondu

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du bai Josefina espezializatuak erreferentzia zentro gisa gauzatzen duen funtsezko lana bai klinikak Osasunbidean sare publikoaren barnean behar duen egonkortasuna. Edo egungo ituna sakondu dezan, ezinbesteko baliabide horren bideragarritasuna bermatzeko.

Osasun Batzordeak herenegun egindako bilkuran, bestalde, adierazi zuenez, "epe ertain-luzera, Alzheimer gaixotasunak gero eta pertsona gehiagori eraginen die Nafarroan". Hori dela eta, Parlamentuak gobernuari premiatu du "azterlan bat egin dezan, errealitate hori kontuan hartuta, eta Erriberan Ospitale-gune bat sortzearen aukera azter dezan, Nafarroako herritar guztiei ekitatea eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz". Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal DuguK, PSNk eta I-Ek alde egin zuten. UPN eta PP abstenitu ziren.

>>

CUNetik Osasunbideara

Maiatza hastearrekin batera Clinica Universidad de Navarra (CUN) lotutako pertsonen lehen mailako osasun artatzea sare publikoan egitera pasa da. Orain arte pertsona horien CUNen jasotzen zuten zerbitzu horregatik Nafarroako Gobernua bost milioi euro ordaintzen zituzten. Osasunbideak, beraz, 7.050 pertsona berriri ematen die zerbitzua orain. Haietatik, 48 sakandarrak dira Diario de Navarra zabaldu duenez. 22 Irurtzango osasun eskualdekoak dira, 20 Etxarrikoak eta 6 Altsasukoak.

>>

LHko ikaslea saritua

Lanbide Heziketako ikasketen sari berezia jaso du Sakana Lanbide Heziketa institutuko Iñigo Gonzalez ikasleak. Sari horiek Lanbide Heziketako ikasketak bakoitzeko espediente onenak saritzeko balio dute. Gonzalezek industria mekatronika ikasketak egin zituen iruindarrak aurreko ikasturtean Altsasuko ikastetxean. Saria Jose Luis Mendoza kontseilariaren eskutik jaso zuen. Eskaintza Merkataritza Zerbitzuetako Oinarrizko Lanbide Heziketa (berria), gradu ertaineko ikasketetan soldadura eta galdaragintza eta mantenu elektromekanika. Goi graduako industria mekatronika (lehenengo industria mantenua). Eta Mendi ertaineko erregimen bereziko kirol ikasketak ere eskaintzen dira institutuan. Martxotik industria arloko mantenu eta muntaia profesionaltasun ziertagiriak lortzeko ikasketak ere eskaintzen dira institutuan. Martxotik industria arloko mantenu eta muntaia profesionaltasun ziertagiriak lortzeko ikasketak eskaintzen ari da.

>> Altsasu



Florencio, eman duen koadroarekin.

Alonsoren obra onena klinikan ikusgai

Lizarrako Florencio Alonso Sevilla margolariak bere lanik onena Josefina Arregi klinika piskogeriatrikari eman dio. Bere ama klinikan ingratsua egon zen eta altan joan ondoren komunikabideetan ikusi zuen, klinika ez zela gai aurrera egiteko ez baitzituen ekonomikoki aurrera ateratzeko ahalbiderik. Hori horrela, pentsatu zuen bere obrarik onena eman ahal izango zuela. Jendea sentsibilizatu eta arazoak konturatzeko, baita laguntza ahalbidetzen laguntzeko ere. Beraren ustez, klinika oso garrantzitsua da pertsona hauendako klinikari esker beraien bizi kalitatea hobetzeaz gain, tratamenduak oso zehatz ezartzen direlako, oso pertsonalki.

+www.guaixe.eus

>>



Asteartean aritu zirenetako batzuk.

Ezkila errepikak hemen dira

Maiatzeko gurutzetik irailkora, asteartetik irailaren 14ra arte, eguerdian ezkila-errepikakentzunen dira Altsasun. Aurreko errepikan Asier Beramendi (1988an hasi zen errepika jotzen, 10 urterekin), Felix Martinez (1990tik), Jesus Irisarri (1985etik) eta Jesus Bengoetxea (2008tik) aritu ziren. Lau bat minutuko txandatan aritu ziren ezkila nagusiekin eta txikiak jotzen lana partekatu zuten. Azken langintza horretan Anjel Aldasororen, Txararren, eta Pedro Jimenezen laguntza izan zuten. 18 minutu inguru iraun zuten aurreko errepikak. Guztia-zen zuzeneko lekuko izan zen Javiero Ollo alkatea. Errepika berreskuratzen zuten Enrike Zelaia Foru plaza- zatik jarraitu zuen errepika.

» Uharte Arakil / Arbizu / Iturmendi / Urdiaín / Olatzagutia

Eskola txikiek etorkizuneko lan zutabeak eta baloreak zehaztu dituzte

Iturri zaharreko ur berria goiburua zuen ekitaldiarekin Sakanako eskola txikiek euren identitatearen berri ematen duen dokumentua aurkeztu zuten Lakuntzan pasa den ostegunean

Ibarreko bost eskola dira agiria landu dutenak: Uharte Arakilgoa, Arbizukoa, Iturmendikoa, Urdiaingoa eta Olatzagutikoa. Elkarlanean egindako aurkezpenean eskola txikietan egindako lana Sakanara zabaldu nahi izan zuten, "hemen gaude adieraziz". Dokumentua, sinbologia askorekin, era poetikoan aurkeztu zuten artea, dantza eta musika tartekatuz. Jose Luis Mendoza hezkuntza kontseilaria ostegunean Lakuntzan izan zen. Berak "eskola txikiek herrietan duten garrantzia" nabarmendu zuen.

Aurkeztutako dokumentuak bi atal ditu, bata, eskolen identitateak osatzen duten aspektuak jasotzen ditu, eta eskolen lanaren zutabeak direnak bestea. Aitziber Vitoria irintarrak eta Uharte Arakilgo eskolako irakasleak zutabeak zein diren azaldu dizkigu: "gure hizkuntza, euskarari garrantzia handia ematen diogu; kultura; publikoak garela; aniztasuna; ekitatea eta errespetua. Horiek oinarri hartuta hainbat balore landu nahi ditugu: pedagogiari garrantzia ematen diogu; ikasleek, irakasleek, gurasoek zer nolako eskola nahi duten entzun dugu; euskara balore gisa jarri dugu, asko baloratuz, estimatu eta bulkatu nahi dugulako; hezkuntza komunitate guztiaren arteko harremanak eta sormena". Vito-

riak azaldu duenez, "balore horiek guztiak lantzen ditugu Sakanako etorkizuna gure eskola txiki hauek dagoelako eta haien hezkuntzak etorkizuneko Sakanan asko eraginen duelako".

Agirian elkarlana eta talde lana ere aipatzen dituzte. "Hain eskola txikietan, esaterako Iturmendin hiru irakasle gaude, azkenean, partekatzea, beste irakasle batzuekin hitz egitea eta esperientziak trukatzeari behar duzu. Elkarlana ezinbestekoa da gure eskoletan".

"Dokumentua mamitsua da, baina irakurteraz egiten saiatu gara" dio Vitoriak. Agiria lan tresna bihurtu zaie. Amaia Zubiria urdiaindarrak eta Iturmendiko Arrano Beltza eskolako zuzendariak esan digunez, "lehenik eta behin gure ikasle txetara etortzen diren irakasle berri guztiak agiria irakurri eta euren auzi beharko dute. Eskoletan gelditzen diren zuzendarien lana hori bermatzea da. Hortik abiatuta hezkuntza proiektuak egin nahi ditugu. Dokumentua lanean segitzeko oinarria izanen da".

Zergatia

Zubiriak identitatearen hori azaldu digu: "konturatu ginen eskola hauek iraganeko historia gogorra eta latza dutela eta horrek eskola hauen izaera pixka bat markatu zuela. Gaur egun garai horretako eskolarekin ez dute zerikusirik. Ez zegoen definitzen gintuen ezer". Bost eskolen koordinazio bileretan jabetu ziren. Zubiriak azaldu digu-

Bidea



Hasieratik garbi izan zuten laguntza behar zutela eta ezin zutela irakasleek bakarrik egin. Zubiriak aitortu digu "prozesu luzea" izan dela eta "erakunde askorekin hitz egin dugu". Hitz egitea prozesuaren funtsa izan dela aitortu digu ere, "asko hitz egin dugu". Sakanako Mankomunitateko lehendakariarekin eta lehendakari-ordearekin, bost herrietako udalekin, Sakanako ikastolekin ("beraiei esker ireki zen eskoletan euskaraz ikasteko eskubidea"), ibarreko gainontzeko eskolekin eta Franco garaiko ikasle ohiekin. Ametsen fasean udalekin, gaur egungo irakasle, gurasoekin eta ikasleekin hitz egin zuten. Irakasleendako prozesua "oso aberasgarria" izan dela aitortu digute biek. Bide batez, parte-hartzaile guztiak esker eman dizkiete, "izan duten jarrera oso ona izan baita". +www.guaixe.eus

nez, "bost eskolen artean komuna genuen zerbait bilatu beharko genuela konturatu ginen. Nortzuk garen jakin eta, pixka bat iraganari begiratu, hura zer izan zen ikusi, motxila hori gainetik kendu eta berriro zer izan nahi dugun". Azken horretarako izan nahi zutena erakiki behar izan dute. "Horretan datza gure identitatea, orain arte inon jaso eta definitu gabe zegoena".

Vitoriak azaldu digu guztiaren prozedura. Lehenik argitu digu Juan Migel Ruizek lagundu diela

prozesua aurrera eramaten. "Eskola nazionala izan ziren horretatik hasi. Zein beldurra eta nola funtzionatu izan duten garai haietan. Beste fase bat, ametsarena deitu dioguna: zertara iritsi nahi dugun". Zubiria: "gaur egun identitatea eta zutabeak badaude, baina prozesu honetan bizi, sentitu eta gureak egin ditugu. Paper batean idaztea oso erraza da". Identitate dokumentuan jasotakoa euren egiteko bost eskoletako klaustrakideek parte hartu zuten prozesuan.

SAKANA

Gizarte eragileak langilearen egunean kalean

Langile eguna zela eta Sakanako hainbat gizarte eragilek deituta 150 bat pertsonak manifestazioa egin zuten Altsasun igandean. "Denon indarrak batuta itozten gaituen sistema txikitzea goaz, Sakanako etorkizuna berreraikiz". Ibilbidean zehar ikasleen, feministen,

ingurumenaz kezkatutako, indar erreprentazioen alde gitea eskatzen dutenen, gazteen eta besteren aldarrikapen sektorialen berri eman zituzten. Sindikatuei dagokienez, LABek ibarrean egin zuten ekitaldia eta gainontzekoek Iruñean. +www.guaixe.eus



Maiatzaren 1ean gizarte eragileek manifestazioa egin zuten Altsasun.

SEBek ekainaren lauko bat egin du

Nafarroako euskalgintzako eragileen bilera deituta dago larunbaterako Iruñean. Sakandarren presentzia han bermatzea erabaki zuen Sakanako Euskalgintzaren Bilguneak (SEB) larunbatean egindako bileran. Horrekin batera Nafarroako euskaltzaleek garagartzaroren 4rako Iruñean izanen den manifestazioarekin bat egin eta haren zabalkundea egingen duela erabaki zuen. SEBek hurrengo bilera irailean deituko du.

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua 9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Etixerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

% 25 DESKONTUA

Konfiantzazko aseguratza orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 • ALTSASU

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

Non erabili

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU

TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

%5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldatketan %30 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA

LAKUNTZA

40€ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

M^a del Mar Albarrazin Razkin
Antonio Goikoetxea Fernandez
M^a Angeles Ayestaran Goñi
M^a Angeles Sanz Aizpun

Ismael Igoa Ezkutari
Antonio Jimenez Mendiola
Fidel Salinas Ferrer

Parrandan ere gogoan zaituztegu.

1960ko kintoak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin 948 564 275 telefonora



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu · 948 564 275 · gk@gkomunikazioa.eus



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak
LAN ESKARIA
Sukaldaritzak-laguntzailea lana bilatzen ari da, eskarmentua du. Zuriñe 600 27 73 03.

Higiezinak
ETXEA

SALGAI

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzan. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

Opatutakoak / galdutakoak
OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezesserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak
Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Eko-ogiak. Maiatzaren 10ean (ore ama), 17an (hobekuntza) eta 24an (glutenik gabeko ogia), asteartean, 18:00etatik 21:00etara. Arakilen erroldatuek 50 €, saio bakarragatik 20 € ordaindu behar dituzte. Arakilen erroldatuta ez daudenak 60 eta 25 €. Izen ematea eta informazioa: arakikultura@gmail.com edo 948 500 101.

Arakilgo Udala.

Oharra
Cava festa Lakuntzan maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Txingurriyek bazkariak eta afariak emanen ditu. Lagundu nahi duenak kultura@lakuntza.eus helbidera idatzi dezala.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEneer Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behe, Errotxapean, hilabete-ko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago:

www.euskonews.com/laguntza
euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBK kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixea txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta dendak. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota

bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoa.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionali, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoz.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxstiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina:

JAIOTZAK

- **Alain Rodriguez Sanchez**, apirilaren 19an Altsasun.
- **Arai Goñi Sanchez**, apirilaren 22an Etxarri Aranatzan.
- **Eire Audikana Portuondo**, apirilaren 23an Olaztin.
- **Maier Busto Sueskun**, apirilaren 24an Altsasun.
- **Aiora Trevejo Carrera**, apirilaren 29an Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

- **Nicolas Falcon Pino eta Naroa Flores Lizarraga**, apirilaren 30ean Arbizon.

HERIOTZAK

- **Jose Aramendia Agirre**, apirilaren 28an Ziordian.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

MAGNA GURPEA SEIGARRENA: Lehen mailako areto futboleko liga erregularra despiditu da. Azken partidaren Magna Gurpea Xotak eta Peñiscolak launa berdindu

zuten. Maiatzaren 13an El Pozoren kontra jokatu duen play-offetako final laurdena prestatzen ari da talde berdea.

Pilota

Txapeldunen bila

II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako finalak jokatu dira bihar, larunbatean, 17:30ean, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku klubak antolatutako II. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketako txapeldunak nor izango diren bihar erabakiko da. Martxoaren 4an hasi zen txapelketa eta ordu-asteburuko pilotak aritu dira bertan izena eman duten bikoak. Hiru mailatan jokatu da txapelketa eta aurreko asteko finalerdiek zehaztu zuten nor jokatuko dituzten Altsasuko Alde Zaharreko festen barruan antolatutako final handiak. Altsasuko Gazte Asanbladatik adierazi dutenez, finaletan giro paregabea espero da, txaranga batek animatuko baititu final guztiak.

Finalak

Larunbatean, 17:30ean, Burunda pilotalekuan

3. maila: Larrion-Santamaria / Araña-Lazkoz

2. maila: Ansa-Urrizola / Vazquez-Igoa

1. maila: Zelaia-Grados / Lopez de Zubiria-Garziandia



64 bikote XLV. Olaztik San Migel Txapelketan

Joan zen asteburuan hasi zen XLV. Olaztik San Migel Elkarte Pilota Txapelketa. Batetik txapelketa herrikoia dago jokoan. Bertan 43 bikote lehiatuko dira guztira, hiru mailatan banatuta. Bestetik, afizionatuen txapelketa dago jokoan. Bertan 21 bikote lehiatuko dira. Partidak ostiral gauetan eta larunbat arratsaldetan jokatu dira, frontoian.

222 BIKOTE TXIKIENEAN

Bestalde, Sutegi-San Migel Pilota Txapelketa, kategoria txikien txapelketa, martxan da apirilaren hasieratik. Bertan 222 bikotek parte hartzen dute, txikien mailatik hasita gazte mailaraino.

Asteburukoa

Ostiralean, 20:00etan

3. maila: Alegria-Imaz / Azparrren-Agirre

2. maila: Gorriti-Irañeta / Elorza-Urbizu

Nagusia: Ansa-Irurita / Kandelala-Nafarrete

Larunbatean, 17:00etan

3. maila: Urtzi-Grados / Ruiz de Egiño-Galartza

2. maila: Barban-Xestero / Tuerro-Goñi

Pilota



Ezkurdiak lehen zati ikusgarria egin zuen baina zorte txarra izan zuen gero.

Zortea ez du alde Ezkurdiak: agur Buruz Burukoari

Pena handiarekin Buruz Burukoari agur eman behar izan zion Joseba Ezkurdiak. Berak eta egungo txapeldun Mikel Urrutikoetxeak orain arteko Buruz Buruko partidarik lehiatuenetakoa eskaini zuten Bilbon. Tamalez, zortea ez zen arbizuarraren alde egon, eta nahiz eta partidako lehen zatian Ezkurdi ikusgarri aritu eta Urrutikoetxeari alde ederra atera -11 eta 17 aurreratuta egon zen Ezkur-

diak partidari buelta ematea lortu zuen Urrutikoetxeak, denarik gertatu zitzaion Ezkurdiaren aurrean. Komeria latzak izan zituen arbizuarrak. Pilota batek bete betean eman zion eta bekain zauria sortu zion eta eskuin txorkatilan bihurtua izan zuen. Oinazeekin hasi zen Ezkurdi eta azkenik, finalerdietara pasatzea lortu zuen Urrutikoetxeak, 22 eta 19 irabazi eta gero.



Nafarroa, GRAVNI txapelketako txapelduna

GRAVNI tornea 11. aldiz jarraian irabazi du Nafarroak. Ezker paretako frontoian Nafarroa izan da garaile (122 puntu), Bizkaia (102 puntu), Gipuzkoa (101 puntu), Araba (51 puntu), Errioxa (50 puntu) eta Iparralderen aurretik (26 puntu). Eta trinketean Nafarroa gailendu zaio (77 puntu) Iparralderi (74 puntu). Gipuzkoa izan da hirugarrena (59 puntu), Bizkaia laugarrena (54 puntu), Araba bosgarrena (33 puntu) eta Errioxa seigarrena (6 puntu).

Parot, Maiza eta Huizi txapeldunordeak

GRAVNIko finaletan izan da

ordezkari sakandarrrik. Trinketean, tartean, emakumezkoen pala argentinarreko gazte mailako finalean Iparraldeko Irigaraik eta Behasteguyk 30 eta 18 irabazi zieten Espinal eta Parot nafarrei. Hortaz, txapeldunordea dugu Izar Parot etxarriarra. Senior mailan Amestoy eta Mariscori (Iparralde) 28 eta 30 irabazi zieten Anduezak eta Zamorak (Nafarroa). Ezker paretan, tartean, emakumezkoen pala txapelketako 22 urtez azpiko finalean Arrizabalaga eta Villanueva bizkaitarrek 30 eta 24 hartu zituzten menpean Maiza eta Huizi nafarrak.

Herri kirolak

199 gazte ikastetxe arteko herri kirolean

XII. Sakanako Ikastetxe Arteko Herri Kirol Topaketan aritu dira, Altsasun

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, XII. Sakanako Ikastetxe Arteko Herri Kirol Topaketan izan ziren asteazkenean Altsasuko Burunda pilotalekuan. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak izan ziren bildu direnak, 199 guztira, eta ekitaldia antolatzeke 17 irakasle aritu ziren laguntzen.

Kañameres aita semeen trontza eta aizkora erakustaldiaren ondoren, taldeak sortu eta herri kirol proba konbinatuetan aritu ziren ikasle guztiak.



Kiroldegia

Irurtzungo kirolari errepasso ederra

Irurtzungo Kirol Ekitaldiak antolatu dituzte maiatzaren 4tik 14ra

Irurtzungo kirol taldeak eta Kirol Batzordeak Irurtzungo Kirol Ekitaldiak antolatu dituzte. Herrian lantzen diren kirolak, kirola eta osasuna, Irurtzun eta bere ingurunea... eta beste izanen dituzte hizpide. Ekitaldiak maiatzaren 4an hasi ziren, Magna Gurpea Xota eta Gurpea Xotaren arteko konbinatuaren arteko partida batekin, eta maiatzaren 14an despidituko dira, herri kirol mistoa

eta gaitasun-probekin eta herri afariarekin.

Gaur, mahaingurua

Irurtzungo kirolari eta kirolariei errepasso ederra egingo dio gaur, ostiralerako antolatu den mahainguruak. Mikel Goldarazena moderatzaile dela, Tamara Angulo, Fermin Escudero, Jose Javier Zabaleta, Imanol Arregi, Txomin Nagore, Mikel Lasarte, Alejandro Maya eta Luis Martil ariko dira solasean.



Harrijasotze eskolako arduradun Mikel Lasarte izango da gaurko hizlarietako bat.

Irurtzungo Kirol Ekitaldiak

Maiatzak 6, ostirala, 20:00etan, Kultur Etxean. Mahaingurua: Irurtzungo kirola eta kirolariak. Hizlariak: Tamara Angulo (Indoor Zikloa), Fermin Escudero eta Jose Javier Zabaleta (pilota), Imanol Arregi (areto futbola), Txomin Nagore (futbola), Mikel Lasarte (herri kirolak), Alejandro Maya (txirrindularitza), Luis Martil (karatea). Moderatzailea: Mikel Goldarazena.

Maiatzak 12, osteguna, 20:00etan, Kultur Etxean. Hitzaldia: Kirola eta

osasuna. Hizlaria: Eduard Casanovas (OREKA, fisioterapia eta osteopatia).

Maiatzak 13, ostirala, 20:00etan, Kultur Etxean. Proiekzioa: Irurtzun eta bere ingurunea. Sakanako Ibilaldia, eskalada Bi Ahizpak pasabidean eta Irurtzungo bidexkak. Maiatzak 14, larunbata, 18:00etan Foruen plazan: Herri kirolak mistoa eta gaitasun-probak (Irurtzungo taldeak)

Maiatzak 14, larunbata, 21:00etan, Barazki Gunean (Karpa): Herri afaria. (Txartelak Irurtzungo udaletxean salgai, 10 eurotan, maiatzaren 11 baino lehen).

Gerrikagoitia: "Herri kirolak bulkatzen jarraituko dugu"

Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak azaldu duenez, Mank-ek herri kirolak sustatzen jarraituko du. "Gure kirola da eta bulkatzen jarraituko dugu gure indar guztiekin" azaldu zuen. Ikastetxe ezberdinetako neska-mutikoen arteko harremanak bulkatzea da jardunaldi honetako beste helburu bat. "Ez da proba lehiakorra, baina herri kirolek xarma berezia dute eta gaztetxoek gogo biziz parte hartzen dute. Eta ikusle daudenak izugarri animatzen dituzte besteak" gaineratu zuen.

Mendia

1.165 mendizale Sakanako Ibilaldian

638 mendizalek Ibilaldi Luzea hautatu zuten, 385 mendizalek Ibilaldi Motza eta 142 Ibilaldi Txikian

Mendiak beti erakartzen du, baina urtetik urtera gora egin du bizitza ulertzeko modu honek. Bestela, galde diezaietela Irurtzango Iraxok antolatutako XXVII. Sakanako Ibilaldian parte hartu zuten 1.165 mendizaleei. Larunbateko hotz, euri, elur eta eguzki tarteei aurre egin zieten guztiek, izugarriko animuarekin. Parte-hartze errekorra gainditu zuen Irurtzango proba ez lehiakorrak.

Gehienek, 638k, Ibilaldi Luzea aukeratu zuten (54 km, 3.388 m desnibel positiboa). Nahiz eta eguraldiak ibilbidea are gehiago gogortu, gustura topatu genituen mendizaleak Aralarako San Migeleko hornidura gunean. Tarteka elurra

ari zuen Aralarren. Ibilbidea gogorra baino ederra zela nabarmendu zuten mendizaleek, eta Sakanako paraje zoragarriak ikustea sari "bikaina" zela.

Ibilbide Motzaren hautua 385 mendizalek egin zuten (27,5 km, 1.344 m desnibel positiboa). Aipatu zigutenez, pare bat zaparrada gogor izan zituzten, baina ez zuten aparteko arazorik izan. Azkenik, eta etorkizuneko mendizaleak trebatzeko, aurtengo lehenengoz Ibilbide Txikia (14 km, 736 m) antolatu zuen Iraxok. 142 mendizalek, handiek eta txikiek, Trinitatera jo zuten, Latasara jaitsi eta Arrantzaleen Xendatik Irurtzuna heltzeko. Oso txalotua izan zen ekimena.

Iratxo elkarteak 70 pertsonako lan taldea gidatu zuen guztia ongi antolatuzko.



Mendizaleak Aralar igotzen. Tarteka elurra ere egin zuen Aralar gainean.

Motoziklismoa

Urta hirugarrena Albaidan

Espainiako Supermotard Txapelketako lehen proba jokatu zen Valentzian

Fernando Urta Espainiako Supermotard Txapelketan estreinatu zen, asteburuan Valentziako Albaidan jokatuak lasterketan. Olaztiarrak lan bikaina egin zuen eta master 35 kategorian hirugarren postua lortu zuen, lasterketa oso lehiatua.

Eguraldia oso aldakorra zegoen, ekaitzak tarteko. Lehen lasterketan zorua bustia zegoen, baina

bigarren lehorrak, eta horregatik Urrak lau aldiz aldatu behar izan zituen gorpilak guztira. Bi lasterketak oso borrokatuak izan ziren eta bietan Urta hirugarrena sailkatu zen. Hortaz, hasiera bikaina eman dio Espainiako Supermotard Txapelketari.



Automobilismoa

VI. Irurtzun Slaloma jokoan

Bihar, larunbatean, 16:00etatik aurrera Akaborro industrialdean

Larrazpik eta Trinidad Motoclubak, Irurtzango Udalaren laguntzarekin, VI. Irurtzun Slaloma antolatu dute biharko, larunbaterako. Akaborro industrialdean antolakuntzak zehaztutako ibilbide konplikatuak osatu beharko dituzte gidariek. Automobilismo modalitate honetan abiadura baino gehiago, pilotuen gidatzeko trebezia baloratzen da.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Tenisa



Tenis Rubor txapelketako kadeteen mailako irabazleak, Tennis Rubor elkarteak koordinatzaile Ricardo Canterorekin.

XI. Tennis Rubor Txapelketak baditu txapeldunak

60 tenis jokalarik lehiatu dira berriki jokatu den txapelketan

Tenis Rubor Altsasu Tennis Elkarteak urte asko daramatza Altsasun tenisa sustatzen. Ricardo Cantero koordinatzaileak adierazi digunez, bi talderekin egiten dute lan. "Batetik, tenis eskola dago, 7 urtetik 16ra urtera bitarteko neska-mutikoei osatzen dutena. Aurtengo 65 haur tenisean trebatzen ari dira gurekin. Eta, bestetik, hobekuntza taldea dago, helduena. 12 pertsona inguru aritzen dira bertan" azaldu digu Canterok.

Iratxe Soriano eta Xabier Bergera dira eskolako monitoreak eta Ricardo Canterok du hobekuntza taldeko ardura. Klaseak Altsasu Institutuko kirol-pista estalian ematen ditu Tennis Rubor Altsasu Tennis Elkarteak. Nahiz eta askotan tenisa kirol minoritarioa dela uste

izan, gutxiengo baten eskura dagoena, Altsasun jarraitzaile asko dituela argi dago eta sakandarrek tenisean aritu nahi badute, bada-kite nora hurbildu.

Txapelketako irabazleak

Duela gutxi despiditu zen XI. Tennis Rubor Txapelketa. Guztira 7 urtetik 16 urtera bitarteko 60 tenis jokalarik hartu dute parte. Txapelketako aurreneko fasea apirilaren 9an eta 10ean jokatu zen, eta bukaerako fasea apirilaren 16an eta 17an. Txapelketako A multzoan 14 pertsonek hartu zuten parte eta final handian Nerea Verak 6-7 eta 7-6 irabazi zion Nora Domingori. B multzoan ere 14 tenislari lehiatu ziren eta Iker Claver Oihan Mariñelarenari 7-7 eta 5-5 gailendu zitzaion. C multzoan, aldiz, 4 tenislari aritu ziren eta Aimar Pechek 4-3 eta 3-

4-2 irabazi zion Ainara Teixeira. D taldean, bestalde, 6 tenis jokalarik lehiatu ziren eta finalean Larraitz Tejedorrek 6-6 eta 1-0 irabazi zion Udane Valdiviesori. E taldean 8 tenislari lehiatu ziren eta Aitor Floresek 6-6 eta 1-2 irabazi zion Aritz M. Ibarretari finalean. Bukatzeko, F taldean 6 tenis jokalarik hartu zuten parte eta finalean Xabi Bengoetxeak 6-6 eta 4-4 hartu zuen menpean Jon Plissoneau.

Ricardo Canterok adierazi digunez, primerako giroa izan da txapelketan eta urduritasuna alde batera utzita, "kalitateko tenisaz" gozatzeko aukera izan zuten txapelketa jarraitu zutenek.

www.tenisrubor.com

Altsasuko taldeko informazio guztia, txapelketako emaitzak, argazkiak eta beste.

2016ko maiatzak 9-13 mayo 15:00-16:30
Ikastetxeko jantokian en el comedor del Centro

ASTELEHENA 9 15:00-16:30
Mundutik Altsasura: zailtasunak, nahiak...

ASTEARTEA 10 15:00-16:30
Munduan barrena hezitzen

OSTEGUNA 12 15:00-16:30
Munduko osasungintzak

OSTIRALA 13 15:00-16:30
Munduko jakiak

2ª semana inter-cultural
2. Semana da Interculturaliade
La deuxième semaine interculturelle
Die zweite interkulturelle Woche
2 международна култура седмица

Aniztasunaren 2. astea
الأسبوع الثقافي الثاني
The second inter-cultural week
跨文化周

AMA TALDEA GRUPO DE MADRES

Europako Musika Eskolen Jaialdia Altsasura

Gaur, 18:00etan, eta bihar, 11:00etan, Altsasuko lortia kultur gunea parean

Donostiako Europako kultur hiriburutzaren programazioaren barruan asteburuan XII. Europako Musika Eskolen Jaialdia ospatuko da, Emusik 2016. Baina ez soilik Gipuzkoako hiriburuan. Kontinentetik etorritako makinabat musika eskoletako ikasleek Euskal Herriko eta Errioxako hainbat herrietan barna kontzertuak eskainiko dituzte, tartean, Altsasun. Europatik etorritako musikariek batera Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako musika eta dantza ikasleak Erkudengo Ama abesbatzak eta Burundar Txistulariek parte hartuko dute.

Egitaraua

Gaur, 18:00etan, Koloniako (Alemania) Rheinische Musikschule Köln-

de musika eskolako gazte haize orkestra sinfonikoak, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako batukadak, konboak eta eskolaniak eta Erkudengo Ama abesbatzak kontzertua eskainiko dute.

Bihar, 11:00etan, berriz, Toskanako Prato (Italia) Guiseppe Verdi musika eskolako Eufonios abesbatza, Orchesta D'Archi della Verdi, 3 BieN rock taldea, Altsasuko musika eta dantza esko-

lako dantzariak, Burundar Txistulariak eta Szombathelyko (Hungaria) Bartok Bela Zene eskola musika eskolaren instrumentu tradizionalen taldea, Hangyaboly, ariko dira.



EMUSIK 2016

bazterretik

Jose Luis Asensio

Gôkon

Behin edo behin hitz egindugu japoniarreke dutela, orokorki hitz eginez, erraztasun handirik jendea ezagutzeko. Beraien gizartearen barruan rol bat jarraitzen dutela esan daiteke, bat batekotasuna alde batera utzita.

Gazte direnean, duten hezkuntza sistema gogor eta konpetitiboa dela eta, beraien artean lehiatzera bultzatuta ikusten dute bere burua. Bestalde, heldutasunera heldu ondoren, lanean ere ordu piloan jarduten dute. Ohizkoa izaten da lankideekin bakarrik erlazionatzea. Lagu-

nak egiteko moduak mugatuak dituzte.

Testuinguru honetan, jendea ezagutzeko modu ezberdinak sortu dituzte. Azken finean pertsonak gizartearen beharra dugu, erlazionatzeko beharra. Normala da, adibidez, lan eguna bukatuta lankideak batera edatera irtetea, sozializatzeko beste modurik ez baitute egun osoa bulego barruan egon ondoren.

Gazte eta ikasleen artean gôkon izeneko topaketak aspaldidanik burutzen dira. Itsuka biltzen den jende talde bat bezala deskriba dezakegu. Sexu bakoitzeko talde bana osatzen da, kopuru berdinean ahalizanez gero. Normalean talde bakoitzeko arduradun moduko lider bat dago, non taldea osatzen saiatzen den. Ondoren, topaketa antolatzen dute, arduradunen artean tokia eta ordua adostuz. Eta ezezagun ez osaturiko bi taldeak edatera eta jatera elkartzen dira.

Helduen artean ere sortzen dira honelako topaketak, baina ikaslearen artean hedatuago dago. Zergatia erraza da: ikastetxe asko sexu bakarreko ikasleez osatua dago. Beraz, topagune hauek beste sexu-ko lagunak edo bikoteak aurkitzeko modua dira. Baina ez da arra-

zoi bakarra. Normalean ikasleek ikaskide berdinekin urte ugari ematen dituzte, eta bilera hauekin beraien zirkulu sozialak zabaltzea lortzen dute, lagun berriak eginez. Bilera hauetan denak nahasirik eserita biltzen dira, eta beraien burua aurkeztuz hasi egiten dute elkarrizketa. Behin bakoitza nor den jakinda, edaten eta jaten ematen dute afari osoa, galdera gehiago taldeka eginez, edo banaka jendearekin hitz eginez. Afaria bukatu ondoren, normala da ere, zenbaitek parrandan jarraitzea karaoke batean bikote bila, ondo pasatzera edo gau horretarako sexu bila.

Bilera hauen bertsio ezberdinak ere badaude. Izen ezberdina dute zertarako biltzen direnaren arabera. Adibidez, shumikon izenekoak zaleztasun berdina duten jendea biltzen dituen afariak dira. Afaltzen duten bitartean guztien gustuko den gaia jorratzen dute: zinea, komikiak edo musika mota bat. Asa-gôkon bestalde, goizeko 5:30ean biltzen diren pertsonak dira, kafea edan eta bolo-jokoan aritzeko, lanera joan aurretik.

Tira, argi dago oso ezberdinak garelako, baina baita ere, guztiek biltzen dugula modu batez edo beste batez, laguntasuna.

Sexua antzerki amateur zikloa zabaltzeko

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Aqui hay madera antzerki taldeak zabalduko du VI. Altsasuko amateur antzerki zikloa. Dario Foren *Tengamos el sexo en paz* bakarrizketaren egokitzapena taularatuko du. Fok bere emazte Franca Raméren laguntzaz haiek sexua nola bizi zuten azaldu zuen. Talde iruindarrak testua berraztertu eta "umorez eta maitasun handiz" heldu dio gaia-ri; "ditugun zalantzengatik, tabuengatik, trabengatik jendeak sexua "ezezagun handizat" jotzen du. Krisi eta murrizketa garaian jendeari sexua gauza oso osasuntsua dela gogoraraztea ez dago batere gaizki" diote.

Komedia da taldeak taularatu duena, sexua, abortua, hilekoa edo orgasmoa dira, besteak beste, aktoreek antzezpenean zehar aipatzen dituzten gaiak. Guztia publikoa barre eginarazteko.

Kudeaketa publikoaren alde iluna

Igandean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean

Miguel Munarrizek sortu du *Toma el dinero y corr(omp)e* antzez-lana. Bera da zuzendaria baita antzeleetakobat, Marta Juanizekin batera. Camiloren bizipen berri ematen digu obrak. Alprojaren eta jaunaren arteko nahastea da Camilo. Karrerako funtzionarioa da eta inork baino hobeki ezagutzen ditu administrazioaren zirrikituak. 16 urte politikagintzan aritu da eta horrek "politikakomundusoa" ezagutzeko aukera eman dio. Ibilbidea bukatuta, bedel postura itzuli da.

Camilo funtzionario akatsgabea izan zen beti. Baina bere bizitzan aldaketa izan da: emakume bat ezagutu du, Elvira. Hiru urte darumate elkarrekin eta Camilo kudeaketa publikoaren alde ilunera pasa da. Langile publiko akatsgabea zena erabat aldatua dago. Bere maitearen zoriontasuna opatu asmoz, azken kolpea, kolpe handia, emateko prest dago.

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Eskola txikien identitate dokumentua
- Ikastetxe arteko herri kirol jardunaldia
- lortia antzerki tailerraren antzez-lana

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Gerra zibil ondoko istorio bat

Aquel invierno antzezlan taularatuko du Iortia antzerki tailerrak gaur, 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Tailerra lastailean hasi zen Birjiñe Albiraenesanetara. “Biziaren kontuak” soilik sei aktore zuzentzera eraman dute Albira: “gazte asko egon dira orain arte, baina ikasketak, bizitza, ezkontzak, amatasunak... aurtentse gaude eta, egia esan, osogustura ari gara lanean”. Taldeari antzerki teknikak erakusteko talde txikia izatea hobe izanik, “aurten egin dugun lana ezberdina da. Orain arteko antzezlanguztiak nahiko arinak eta surrealistak izan dira. Honetan gehiago sakondu dugu. Beraz, lana erabat ezberdina da”. Drama da Iortia antzerki tailerrak gaur taularatuko duena.

Gerra zibilaren ondoren “gertatu ez zen baina gerta zitekeen istorio bat” antzeztuko dute. Albiarak ziurtatu duenez, “nahiko istorio errealista da. Garai hartan bizi zen drama horietako bat izan daiteke”. Irakasle bat da protagonista: “Marcos presente dago, bere ize-na aipatzen da, baina ez da inoiz agertzen. Preso dago. Hil egin behar dute eta bere inguruan gertatzen da gertatzen den guztia”.

Istorioaren gordintasunak arreta bereganatzea nahi du zuzendariak, horregatik, aktoreen janzkera oso neutroa da (denak ia txuriz jantzita doaz). Aldi berean, eszenografia ahalik eta soile-na erabiltzea erabaki dute. Bi eszena dira, Rosaliren etxea eta ukuilu bat.

+www.guaixe.eus

Zein da zein



Rosali, irakaslearen emaztea (Amelia Lapuente). Etxean bakarrik gelditu da eta ilobak aurrera atera behar ditu, haien gurasoak hil egin baitzituzten. “Senarraren eskutitzak jasotzen segitzen du. Azkenekoan zerbait berezia gertatu behar dela irakurri du”.
Mattin, iloba (Eder Goikoetxea). “Mutil serioa eta oldartsua. Gurasoak hiltzera nola eraman zituzten ikusi zuen. Arreba berezia du, beti zaintzen ari dena. Ez du inoiz eztan-

darik egiten. Orain arte.”.

Felitu, iloba (Santi Goikoetxea). “Santi mutila da, baina arrebarena egiten du. Oso egoera bitxia bizi du. Neska etxean, kanpoan auskalo. Azken urteak beti kolokan bizi izan da”. Bi ilobak izebarekin “pozik” bizi dira, “baina beti arriskuan daudela ezin dute ahaztu”.
Iloben laguna (Erkuden Palacios). “Beti haien alde jokatzeko du. Haien etxearen eta herriaren gertatzen diren arteko zubi lanak egiten ditu”.

Postaria (Sergio Moreles). Herreria ailegatu den familia oso pobrebateko mutila. “Rosali familia babestu egin du eta harreman estuak ditu. Kartzeleko eskutitzak ekartzen ditu”.

Emilia, alkatearen emaztea (Juli Alvaro). “Gaitztoa. Alkatearen emaztea izatean, boterea du. Rosalirekin gaztetan elkarrekin ibili ziren. Marcosekin ezkondu aurretik harekin zerbait nahi izan zuen. Baina, ezin. Orain boterea duela, bereak egiten ditu”.

Txingurriye taldeak aurkezten du: Gora ezkonberriak!

Larunbatean, 18:30ean eta 19:30ean Lakuntzako kultur etxean. Sarrerak herriko tabernetan salgai daude eta bihar txarteldegian izanen dira ere

Lakuntzan bizitzen bukatu duten pertsonen integrazioaren alde lanean ari da Txingurriye taldea. Integrazioa modu askotan egin daitekeela argi dute, ez soilik lakuntzar berrien seme-alabei eskola-laguntza eman ez edo zeini euskara erakutsiz. Txingurriye taldeko Emma Larre-

tak argidu jarduera ludikoen bidez ere lortu daitekeela lakuntzarren arteko bizirikidetzaren hobetzea.

Larretak arteak gogoko ditu eta joan den urteko Txingurriye egunerako musikalen omenezko ikuskizuna prestatu zuen eta aurtentse “nahasketa komedia” bat idaztea erabaki du. “Joan den urteko ikuskizunaren ondorioz jendeak zer egiten dudana badaki eta aktore lanetarako koadrila eta kezka ezberdinak dituzten lagun talde

anitz biltzea lortu dut”. 20 lakuntzar ariko dira *Gora ezkonberriak!* antzezlanean paperak jokatzen. “Esperientzia gabekoak dira. Euren izaeraren arabera pertsonaiak sortu dituzte”. Aktoreak unerako propio jantziak daude. Gainera, haiek izan dira eszena-tokia prestatu dutenak. Larretak ez digu azalpen gehiago eman nahi izan, “sorpresa da. Entretengarria izanen da”. Hori bai, helduendako ikuskizuna dela azpimarratu digu.

Gidoigileak azaldu digunez lau hilabete daramate antzezlana prestatzen. “Zaila izan da familia eta lana ardurekin uztartzea”. Entseguetan giro berezia sortu dela nabarmendu du Larretak: “elkarrekin ordu asko eman ditugu. Lotsa galdu dute eta herritarren artean ongi pasatu dute. Jende anitza da, ikuskizunaren kontura erlazioa handitu dutenak”. Obran euskara eta gaztelania tartekatzen direla ere azaldu digu: “Txin-



gurriyeren helburua integrazioa da eta horrekin batera euskara bulkatzea. Baina zubi lanerako eta denek ulertzeko erdara erabiltzen dugu ere”.

Amonari loreak

Itziar Nazabalek amonaren omenezko Nire lorategiko arrosari erakusketa asteartean zabalduko du, hilaren 25era arte ikusgai izanen dena; astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

“Ez da erakusketa tristea. Hainbat lore ageri dira koadroetan. Sentimendua eta alaitasuna dira loreak. Kolore asko du. Amonak emandako babes eta maitasun guztia eskertzeko erakusketa da. Bere ohorez. Berari eskainita. Familiaren omenaldia”. Hunkituta hitz egin dituna Itziar Nazabal margolaria da. Joan den urteko apirilean, ezustean, hil zen haren amona. Erakusketarako propio sortutako koadroak izanen dira ikusgai daudenak. Guztietan

loreak izanen dira ikusgai.

Haiek sortzeko teknika nahasia erabili du Nazabalek. Batzuetan akrilikoa, akuarela besteetan. Baina guztietan nahasia. Irudiak lihoa, kotoia, papera eta baldosen gainean sortu ditu. Azken horretan sortzen hasia da. Tamaina guztietako koadroak dira, Nazabal zigilua dutenak: lehenik sentipenen leherketa bat, figurazioa ondoren eta, despeditzeko, eztanda zipriztinak.

Dolua

Amonaren omenez hasitako serie bateko loreak dira. “Nere koadroak bazituen, baina koadro berezi bat oparitu nahi nion. Aditua zenez, lore bat zuen koadro bat oparitzea erabaki nuen”. Nazabalen

lan guztien jakitun eta konplize zen amona: “biluzien serieko poseak aukeratzen laguntzen zidan”. Sekretuan sortu zuen amonarendako loredun koadroa.

“Pozik, gustura sentitu nintzen. Amonarekiko loturak sentipen onak sortu zizkidan eta gauzak mugitu zizkidan”. Atzetik beste bost koadro etorri ziren. “Guztiak amonari erakutsi nizkion oparitarako bat aukeratzeko eskatuz. Ezer jakin gabe, berarendako propio egindako lorea aukeratu zuen”, kontatu digu hunkituta Nazabalek. Loretan aditua zen amonaren laguntzarekin serie bat sortzea erabaki zuen margolariak. Udaberriko ametsa heriotzak errotik moztu zuen, bat-batean. Abendura arte apenas sortu zuen.



Bizia

Nazabalek berezkoa du erakusketa “biziak” egitea, ez da koadroak zintzilikatzerara mugatzen. Haien aldamenen koadroen sortze prozesua erakusten duten argazkiak jarriko ditu. Eta horien osagarri bi jarduera ere antolatuko ditu. Erakusketa asteartean zabalduko bada ere, ostiralean mustutze ekitaldia egingen du Nazabalek, 19:30ean. Perfor-

mancea egingen dute margolariak berak, Irantzu Gonzalez dantzariak eta Jorge Cordon piano-joleak. Nazabalek azken urtean bitzitakoaren irudikapen kontzeptuala izanen da hiruren artean egingen dutena.

Hilaren 19an, berriz, Nazabalek zuzeneko margotze saioa egingen du erakusketa gelan bertan, Jorge Cordonen piano musikaren doinura. +www.guaixe.eus

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 20%	euria: 25%	euria: 18%	euria: 40%	euria: 33%	euria: 48%	euria: 87%
Min: 15 Max: 25	Min: 13 Max: 19	Min: 13 Max: 19	Min: 14 Max: 17	Min: 11 Max: 19	Min: 9 Max: 17	Min: 10 Max: 14

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	19.5	1.5	6.3
Etxarri A.	25.8	-1.3	6.2
Altsasu	26.5	2	7.6
Aralar	17.3	-2.1	6.9
Urbasa	14	0	0

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
29	5	12	20

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

- 1.- Josefa Galan Notario (Altsasu)
- 2.- Francisco Javier Lizarraga (Lakuntza)
- 3.- Maria Jesus Barandiaran (Arbizu)
- 4.- Felipe Horcada Goñi (Altsasu)

>> 11

galdera

Marian Navarro

Ile-apaindegia eta bizartegia

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



eLe

festa

euskara

praktikatu

eta bizi

Sakanan

Maiatzaren 7an, larunbatean,

12:00etan Altsasuko Foru Plazan

haur txokoa egongo da

948 468 258

www.sakanamintza.blogspot.com

sakana_mintza@aek.org

sakanako_mintzakideak

1. **Ile-apaindegia ireki duzu Altsasan. Bizartegia ere bada. Sakanan zerbitzu berria da, ez?**
 Bai. Bizarra ez du inork lantzen. Azken urteotan gizonak bizarra uzten dute. Gerozeta gehiago prestatzen dira, eta zerbitzu hau beste osagarri bat da. Cebado Madridek aukera eman dit bizartegia Nafarroara ekartzeko. Espainia mailan mugitu nahi dugu. Hemengoan izan eta hona ekarri nahi izan dut. Beraz, logoa euskaraz egotea nahi nuen.
2. **Zergatik bizartegia?**
 Duela asko interesatu nintzen bizartegintzan. Ikasteko aukera sortu zen eta aurrera egin nuen.
3. **Leku askotan egon zara. Zergatik ireki duzu Altsasan ile-apaindegi eta bizartegia?**
 Azkenean etxera itzuli behar zarelako. Herria eta hemengo bizi kalitatea gustatzen zaizkit. Denetarik dugu baina bizartegi zerbitzua falta zela konturatu nintzen. Jendea oso ideia ona iruditu zaio. Duela urte bat unea zela pentsatu nuen.
4. **Nola izan da prozesua?**
 Oso argi neukan zer nahi nuen eta nola. Talde handi bat izan dut ondoren laguntzen. Ni sustatzailea izan naiz, arkitektoek antolamendua egin zuten, baina dekorazioa nire da. Herriko jendea kontratatu dut, herriko jendea lana eman diot; hori argi neukan. Bestetik, ile-apaindegian hemengo dendetako arroparekin jantzen naiz. Hemengo merkataritza laguntzeko modu bat da.

5. **Bizartegian zer zerbitzu eskaintzen dituzu?**
 Lehendabizi diagnostikoa egiten diet. Bizarra nola zaindu behar duten esaten diet. Bizarra aurpegiaren leku guztietatik ez da berdina hazten eta, horregatik, ez da maila berdinean moztu behar. Bizarrarendako dauden hainbat produktu erakusten dietere: txanpua, olio, argizaria eta after shavea.
 Ondoren italiar errituala egiten diet: eskuoihala bero dago, lurrunean egon delako, atera eta bizarraren gainean jartzen diet. Horrela egoten dira aparra prestatzen dudana bitartean. Gero bizar-xafla tradizionalarekin bizarra moztu eta txukuntzen diet. Bizarraren zaintzarekin zerikusia duten zerbitzu guztiak eskaintzen ditut, azkenengo tendentziak jarraituz; bizarrak tindatzen ditut, metxak egiten ditut eta gizonentzako depilazioa ere egiten dut.
6. **Nola txukuntzen da bizarra?**
 Aurpegiaren formaren arabera. Makilatzearen antzekoa da: txuriak kentzen du eta beltzak jarri. Bizarrarekin berdina gertatzen da. Aurpegia zabala bada, bolumena behar jartzen dugu eta horrela aurpegia estutzen da. Bolumenaren jolasten da. Horrela aurpegiak luzatu daitezke.
7. **Modak edo tendentziak daude?**
 Bai. Esaterako, aldeetako bizarra edo beheko bizarra bakarrik uztea. Herrialdearen arabera ere joera ezberdinak daude. Herrialde arabiarretan bizarra kokotsaren inguruan eramaten dute bakarrik.

Orain bibotea uzteko moda dator. Ez Daliren bibotea, baina bibotea eramatea.

8. **Sakanako gizonak bizardunak dira?**
 Bai. Lehen bizarra eramaten zuten eta esaten zitzaizkien utziak zirela. Baina orain bizarra eramatea modan dago eta berriz utzi nahi dute. Sakanako hainbat bezero ditut.
9. **Beraz, bizarra zaintzen dute.**
 Etorri direnak esan didate bizarra zaintzen erakusteko. Interesa dute, diagnostikoa egiten diogulako. Ulertzen dute bizarra zaindu behar dutela. Badakite hilabetero edo hilabete eta erdi etorri behar direla txukuntzera.
10. **Zer berezitasun dauka bizartegi bat duen ile-apaindegi batek?**
 Bizartegi corner bat dago. Gizonak beraiendako lekua dute. Haien itxoiteko gela, esekitokia... Askok erosogoa sentitzen dira.
11. **Ile-apaindegian ere berritasunak eskaintzen dituzu?**
 Bai. Alde batetik, adetasun pertsonalizatua ematen dut. Ile-apaindegian formatu naiz, baita estilismoan edo aurpegiaren ezagueran ere. Bezeroak ezagutzea gustatzen zait. Gerta liteke orrazkera bat tendentzia izatea baina pertsona horri gaizki gelditzea. Azterlan txiki bat egiten dut. Gainera, talasoterapia zerbitzua dut ere. Buru-azalaren arazoak tratatzeko zerbitzu bat da. Mikrokamara batekin buru-azala begiratzen dugu anomaliak ikusteko eta gero tratatzen dugu.